

SECCION AMENA

¿BADA EDO EZ DA?

¿Emen aldira? betoz,
 pasa, pasa aurrera
 ¿beaz Premiñi egun
 onak ematera?
 Atsegiñ degu bada,
 bai orīse, eēseri;
 beok ondo dirala
 da bertan ageri.
 Zerbait oraiñ jartzeko
 asmoetan geunden;
 eziñ ordu obian
 litezke izan emen.

¿Esne-arroza artuko
 luteke beok? bai,
 egunen onraz egiñ
 bear degu gaur jai.
 Arrozikan ez degu
 ez, bañan esnia
 bagenduke, litzake
 errez ekartzia
 kanpotik pazichua,
 ta, balitz egurrik,
 esne-arrozachua
 egingo nuke nik.



¡MILLA ARRAYE!....

(MANUELCHO SALAVERRIA-RI).

Eskola batzubetan
 anillua ematen,
 zergatikan euskeraz
 itz egiten duten;
 ¿zér gauzak Mañubelcho
 ditugun ikusten!
 euskaldunak gerala
 ez dute sinisten.

MARCELINO SOROA.